


Windows 98 eta

Pentium III elkarren

ezezagun



Josu Waliño*

Merkatu informatikoan dauden bi enpresa handien artean, Microsoft-ek kaleratu berri duen Windows 98ak ez ditu Intel-en Pentium III prozesadoreak ezagutzen. Bitartean, AMD enpresa arruntagoaren, Intel-enak baino merke eta azkarragoak diren, txipak jarriko dituzte kalean laster batean.

Bakoitzak bere bideari jarraitzen dio, baina antz handia dago Microsoft eta Intel-en artean. Lehenak helburu nagusizat softwarea garatzea baldin badu ere, bigarrenak hardwarearen garapena du ogibide. Hori da desberdintasun nagusia. Ondoren datoz antzekotasunak: biek dituzte arazo legalak monopolio-kontuak direla eta, eta biak dira nagusi beren lan-esparruan. Biek kaleratu dute produktu berria azken urtean eta bi produktuak jaio dira polemikaz inguratuta. Windows 98aren kasuan inork ez zekien zehatz zertara zetorren, zertarako behar genuen hau, Microsoft-ek dagoe-

nekoz Windows NTren ondorengoa izango den Windows 2000ren aldeko apustu garbia egin duenean. Pentium IIIaren jaiotza bestelakoa izan da: abiadura handiagoa duela garbi dago, dagoeneko 450 eta 500 MHz-etan dabilen ordenadoreak kalean baitaude, eta laster baterako 600 MHz-etan dabilena iragarri da. Agindu-kopuru handiagoa du txip honek (70 inguru) 3Dko grafiko eta multimediarako bereziki. Honaino ongi, prozesadore egoikia da, eta zalantzarik ez dago prozesadoreen merkatuan aurrerapauso garrantzitsua izango dela. Baina Intel-ek Microsoft-ek bezalaxe bere harrokeriaren marka



utzi nahi izan du, eta txip bakoitzari zenbaki propioa eman dio, eztabaidarako bidea zabalduz. Badirudi zenbaki hau Internet-etik irakurri daitekeela, horrela erabiltzailearen pribatutasuna galdu egiten delarik. Intel-en esanetan, merkataritza-elektronikoan segurtasuna handitzeko sistema besterik ez da, baina hainbat taldek Internet kontrolatzeko sistematzat jo dute hau. Dagoeneko ikus daitezke Internet-en gai honen inguruko inkestak, eta guztietan Intel agertzen da galtzaile. Garbi dago, zibernautek anonimotasunaren ontzian nabigatu nahi dutela. Azkenean erdibideko irtenbidea aurkitu da: txipak zenbakia eramango du, baina aktibatu gabe. Erabiltzaileak soft bidez aktibatuko du hau gustukoa izanez gero.

AMD ere K7 prestatzen

Intel-ek *Celeron* eta *Mendocino* txipak kaleratu zituenen hasi ziren AMD eta Cyrix enpresen prozesadoreak indarra hartzen. Azken hauek, Intel-en Pentium IIa bezain azkarrak ziren eta askoz merkeagoak gainera. Horren on-

abiadura bereko Pentium IIa baino azkarragoa da, eta zalantzarik gabe merkeagoa ere izango da. Honekin batera, Pentium IIIarekin lehia zuzena egingo duen K7 prozesadorea ere garatzen ari da, eta laister batean izango da merkatuan.

Windows 98 eta Pentium III

Hasieran esan dugunez, beste arazo bat dute Intel-en Pentium III prozesadoreek. Egia esan, ez da prozesadorea arazoa duena, Windows 98a baizik. Badirudi sistema honek ez dituela Pentium IIIak ezagutzen eta Pentium IIa balira bezala erabiltzen ditu. Ondorioz, prozesadoreak eskaintzen dituen aukera guztiak ez ditu behar bezala erabiltzen Windows berri honek. Microsoft eta Intel-ek esan dutenaren arabera, hori ez da arazoa, Pentium IIIa erabiltzaile aurreratuek bakarrik erabiliko baitute oraingoz eta hauek Windows NT eta antzeko sistema fidagarriagoak erabili ohi dituzte. Hala ere, udazkenean kaleratuko den Windows 98aren hurrengo service pack-ak bug hau konponduta ekarriko omen du. Datorren urtean gainera, NTren hurrengo bertsioa izango den Windows 2000 kaleratuko da (dagoeneko 99ko udatik 2000ko otsailera atzeratu dute kaleratze hau), Windows 95 eta 98a ordezkatzeko dituelarik. Hori ondo dago, NTk, bere anaiek eskaintzen ez duten fidagarritasuna eskaintzen duelako, eta gainera besteak bezala DOSen oinarritzen ez delako. Zer lortu dugu orduan Windows 98arekin? Guk ez dakit, baina Microsoft-ek behintzat diru asko. Ondorioa atera behar handirik ez dago, baina bada ezpada irakurri General Motors-eko lehendakariak Windows-ari buruz esan zituenak.

* Elhuyar



dorioz, merkatuan bere tokia izan dute eta Nike edo Adidas erosteari garrantzia ematen ez diogunon artean behintzat arrakasta izan dute. Orain AMD K6-3 prozesadorea kaleratzean dago, eta egindako proben arabera, 450 MHz-eko abiadura duen AMDa,

Windows-a automobilean

Ordenadorei buruzko azken ComDex azokan, Bill Gates-ek ondorengo adierazpenak egin zituen ordenadoreen industria autoenarekin parekatzean:

"General Motors (GM) teknologiar dagokionez ordenadoreen industria adina garatuko balitz, 25 dolarreko balioa luketen eta galoi bat (4,546 litro) gasolinaz 1.000 miliako (16.093,3 kilometroko) bidea egingo luketen autoak gidatuko genituzke."

Horri erantzunez General Motors-ek, Mr. Welch berak idatzitako prentsa-oharra argitaratu zuen. Honela zioen:

"General Motors teknologikoki Microsoft-en moduan garatuko balitz, ondorengo ezaugarriko autoak izango genituzke:

- 1) Gure autoak egunean bi matxura izango litzuke (jakineko arrazoirik gabeak).
- 2) Errepideko lerroak margotzen dituzten bakoitzean, gure autoaren hurrengo bertsioa erosi beharko zenuke.
- 3) Noizean behin, eta zentzuzko arrazoi ezagunik gabe, gure autoa autopistatik irten egingo litzateke; gertatutakoa besterik gabe onartu, berriz ere autoa martxan jarri eta gidatzen jarraituko genuke.
- 4) Maniobra jakin bat eginez gero (adib. ezkererako errebuelta hartu) eta autoak, besterik gabe, agindua beteko ez balu eta berriz ere martxan jartzera ukatuko balitz, motore berria jarri beharko genioke.
- 5) Berez norbera bakarrik eser daiteke autoan, ez beste inor. Hori bai, gerora 'Car95' edo 'CarNT' erosteko aukera izango genuke, baina jarritako eserleku bakoitzeko ordaindu egin beharko genuke.
- 6) Macintosh-ek eguzki-energiarekin lan egingo luketen autoak egingo litzuke, askoz fidagarriagoak, 5 bider azkarragoak eta gidatzeko askoz errazagoak, baina kaleen % Setan soilik ikusiko lirateke.
- 7) Olioaren adierazlea, gehiegizko tenperatura eta bateriarena, ibilgailuaren matxura orokorrerako argi adierazleaz ordezkatzuko lukete.
- 8) Airbag Sistemak 'Ziur al zaude?' galdetuko luke lehertu aurretik.
- 9) Tarteka gure autoko ate guztiak itxi egingo lirateke inolako arrazoirik gabe. Amarruen bidez ireki ahal izango genuke, ordea, hala nola ateko kirtinari sakatuta aldi berean esku batez giltza giratu eta besteaz irrati-antennari eutsiz.
- 10) Autoa erosten duzun bakoitzean, GMk bere filiala den marka bateko txartela erostera behartuko gintuzke; ez dio axolarik txartela behar ote dugun edo nahi ote dugun. Txartela ez erostea hautatuko bagenu, gure autoa berehala % 50 geldoago bilakatuko litzateke (edo beste zerbait okerragorik gertatuko litzaioko). Ondorioz, General Motors justiziak ikertu egingo luke.
- 11) General Motors-ek ibilgailu berria aurkeztuko lukeen bakoitzean, gidari guztiak berriro gidatzen ikasi beharko genuke, autoko eragingailuetako bat bera ere ez litzateke eta aurreko erudian bezala erabiliko."